BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4261

AGINDUA, 2011ko uztailaren 18koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, urriaren 23ko 185/2007 Dekretuan aurreikusitako diru-laguntzetarako deialdia egin duena 2011. urterako. Izan ere, dekretu horrek euskal nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako zientzia, teknologia eta enpresaren inguruan ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzak ezarri ditu.

2007ko azaroaren 13an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko 218. zenbakian 185/2007 Dekretua, urriaren 23koa, euskal nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako zientzia, teknologia eta enpresaren inguruan ikertzaile eta teknologo gazteak prestatzeko laguntzak ezartzen dituena. Dekretu honek Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, elikadura eta arrantzaren sektoreetako arlo zientifiko-teknologikoetan eta merkatuekin, marketing-arekin eta enpresa-antolakuntzarekin zerikusia duten arloetan ikertzaile eta teknologo gazteen prestakuntza sustatzera bideratutako laguntzen esparrua ezartzea eta arautzea du helburu.

Dekretu horren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, urtero irekiko da eskabideak aurkezteko epea Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako sailburuaren aginduz. Bestalde, deialdiko aginduan eduki hauek adierazi behar dira: aurrekontu-kreditu erabilgarria; beka-kopurua eta bakoitzaren zenbatekoa; ikertzaileak eta teknologoak prestatzeko, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak estrategikotzat eta lehentasunezkotzat jotako deialdi horretako I+G+Bko gaiak edo proiektuak jasotzen dituen eranskina; eta, deialdi horretarako normalizatutako eskabide-eredua jasotzen duen eranskina.

Horregatik guztiagatik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntza eta diru-laguntzei aplika dakizkiekeen gainontzeko xedapenekin bat etorriz, honakoa

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Bekak.

1.– 2011ko ekitaldirako, prestatzen ari diren ikertzaile gazteentzako programako zazpi laguntza eta teknologo berriak prestatzeko programako bederatzi laguntza emateko deialdia egin da.

2.– Agindu honetako I. eranskinean daude Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren iritziz 2011ko ekitaldiko deialdian ikertzaile eta teknologoak prestatzeko beka programarako estrategikoak eta lehentasunezkoak diren I+G+Bko gaien edo proiektuen zerrendak.

Bigarrena.– Iraupena.

Laguntzek ondoz ondoko lau urteko iraupena izango dute prestatzen ari diren ikertzaile gazteentzako laguntzei dagokienez.

Teknologo gazteak prestatzeko laguntzei dagokienez Dekretuak ondoz ondoko bi urteko edo urtebeteko laguntzak emateko aukera aurreikusten badu ere, kasu honetan laguntza guztiek bi urteko iraupena izango dute.

Hirugarrena.– Eskabideak aurkezteko epea.

Urriaren 23ko 185/2007 Dekretuak arautu dituen laguntzetara biltzeko eskabideak aurkezteko epea, 2011ko ekitaldian, hilabetekoa izango da agindu hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Laugarrena.– Aurkeztu beharreko eskabideak eta agiriak.

1.– 2011ko ekitaldiko laguntza-eskaerak agindu honen II. eranskinean dagoen eredu normalizatua erabiliz aurkeztu behar dira Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Berrikuntza eta Elikagaien Industriako Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Lakua 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

2.– Eskabideak zuzenean bertara joanez aurkez daitezke, edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan ezarritako bitartekoetatik edozein erabiliz. Eskatzaileak eskabidea postetxearen bidez aurkeztu nahi badu, gutunazal ireki bat eraman beharko du, postetxeko funtzionarioak eskabideari data eta zigilua jarri eta gutuna ziurtatu dezan.

3.– Eskabidearekin batera, urriaren 23ko 185/2007 Dekretuaren 10. artikuluak eskatutako dokumentazio guztia ere aurkeztu beharko da. Bestetik ere, gomendagarria da ekarpena curriculum vitae eredu-proposamenaren araberakoa izatea merezimenduen puntuazioaren gardentasuna errazteko. (Adenda II. eranskina).

4.– Interesdunek laguntza eskatu ahal izango dute edozein programatan, eta I. eranskinean programa bakoitzerako jasotako 3 gai aukeratu ahal izango dituzte gehienez.

Bosgarrena.– Baliabide ekonomikoak.

Laguntzok finantzatzeko bideratu diren kredituek zazpehun eta laurogeita hamasei mila berrehun eta laurogeita hamahiru euro eta bi zentimo (796.293,2 jotzen dute. Horietatik berrogeita hamabi mila bostehun eta berroigeita hamar (52.550) euro 2011ko ekitaldiari dagozkio eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2011. urteko aurrekontu orokorretan helburu horrekin erabiltzeko aurrekontu-partidatik datoz. Gainontzeko743.743,2 euroak hurrengo ekitaldietarako konpromiso-kredituei dagozkie.

Seigarrena.– Onuradunak.

1.– 2011ko ekitaldian beka-eskabidea egiten dutenek urriaren 23ko 185/2007 Dekretuaren 5. artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

2.– 5.1 d) artikuluan zehaztutako betekizunari dagokionez, 2011ko ekitaldiko deialdian, goi-mailako titulua, maila ertaineko titulua edo bigarren zikloko lanbide heziketako titulua (LH II) 2007ko ekainean edo geroago lortu behar izan dira.

3.– Beka-eskabidea egin dutenek artikulu horretan aipatutako betekizunak izan beharko dituzte egiaztatuta eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako.

Zazpigarrena.– Laguntzen zenbatekoa.

1.– Prestatzen ari diren ikertzaileak.

Prestatzen ari diren ikertzaile gazteentzako laguntzek urtean 14.000 euroko hornidura ekonomikoa izango dute beka aldian zehar.

Kontratu aldian zehar, ikertzailearen atxikipeneko erakundeak, zentroak edo instituzioak 21.563,77 euro jasoko du aldez aurretik. Ikertzaileek 16.330 euroko ordainsari gordina jaso beharko dute, urriaren 23ko 185/2007 Dekretuaren 16.1.c) artikuluan ezarritakoari kalterik eragin gabe.

Horrez gain, laguntza osagarri bat jasoko dute onuradunek; urtean gehienez ere bi mila (2.000) eurokoa izango da laguntza bakoitzeko, eta, justifikatu ondoren, doktorego ikastaroetan matrikulatzeko, kongresu zientifiko eta lan jardunaldietara joateko, beste ikerketa zentroetan egonaldi laburrak egiteko, bestelako ikastaroetako eta abarretako gastuak ordaintzeko balio izango du.

2.– Teknologoak.

Teknologoak prestatzeko laguntzek urtean 12.000 euroko hornidura ekonomikoa izango dute. Horrez gain, laguntza osagarri bat jasoko dute onuradunek; urtean gehienez ere mila (1.000) eurokoa izango da laguntza bakoitzeko, eta, justifikatu ondoren, kongresu zientifiko eta lan jardunaldietara joateko, beste ikerketa eta teknologia zentroetan egonaldi laburrak egiteko, bestelako ikastaroetako eta abarretako gastuak ordaintzeko balio izango du.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Agindu honek administrazio bidea agortzen du eta bere aurka interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita. Aginduaren aurka aurkeztu daiteke, baita ere, administrazioarekiko auzi errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, dagoeneko aipatutako aldizkari ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 18a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

I. ERANSKINA

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILAK 2011 EKITALDIRAKO LEHENTASUNEZKO ETA ESTRATEGIKOTZAT HARTU DITUEN PROIEKTUAK.

PRESTATZEN ARI DIREN IKERTZAILE GAZTEENTZAKO LAGUNTZAK.

4 urteko iraupena (laurtekoa).

Proiektuaren izenburua	Hautagaiaren profila
«In Vitro» hazkuntzarako teknologia berriak	Biologoa, nekazaritzako ingeniaria, biokimikoa
Okin produktuen kalitate eta funtzionaltasuna hobetzeko teknologia aurreratuen garapena	Biologoa, Teknologia kimikoa, Elikagaien teknologoa, farmazialaria
Abelgorri haragiaren trazabilitate eta autentifikazioa	Biologoa, albaitaria, nekazaritzako ingeniaria, Elikagaien teknologian lizentziaduna...
Arrantza ontzietan hedadura luzeetako sonaren bidez lortutako hegaluzeen seinaleen sailkapen gainbegiratua eta irudien analisia	Ingeniaria, informatikoa...
Elika osagaiak eduki dezaketen eragin funtzionala ikertzeko metodologia eta screening sistemen garapena zebra arrainean.	Biokimika, Elikagaien teknologia
Nekazaritza sistemak kudeatzeko NIRS teknologia eramangarriaren aplikazioa	Biologoa, nekazaritzako ingeniaria
Elaborazio gastronomikoen zentzumenezko somaketa	Psikologoa edo antzekoa

TEKNOLOGOAK PRESTATZEKO LAGUNTZAK.

Ondoz ondoko bi urteko iraupena (biurtekoa).

Proiektuaren izenburua	Hautagaiaren profila
Aingirabelarren hazkuntza	Biokimikoa, biologoa,
Nekazaritza elikagaien industrien diagnostiko sektoriala	Ekonomilaria, soziologoa
Estres abiotikoari aurre egiteko ongarri biologiko eta ekologiko solidoak	Biologoa, nekazaritzako ingeniaria, Ingurumen zientziak...
Abel ustiategiek airean duten kutsadura murrizteko dauden tekniken azterketa	Biologoa, albaitaria, farmazialaria, nekazaritzako ingeniaria.
Elikagaien kalitatea ebaluatzeko sentsorizazioa	Ingeniaritza, Elikagaien Zientzia eta Teknologia
Arabar Errioxako ardoaren garapen eta zahartzearen kontrol mikrobiologikoa.	Biologoa, Elikagaien teknologoa, nekazaritzako ingeniaria, biokimika, ardogintza.
Hazitako patata ekoizteko teknologia berriak eta balio handiko patata barietate berrien ebaluaketa.	Nekazaritzako ingeniaria
Berrikuntzaren kudeaketarako sistemaren ezarpen eta definizioaren garapena eta laguntza.	Dietetika eta elikaduran diplomaduna, Elikagaien Zientzia eta Teknologian lizentziaduna.
Lagrima ilarrari buruzko azterketa agronomiko, fisiologiko eta genetikoa.	Biologoa, Elikagaien teknologoa, nekazaritzako ingeniaria.

II. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SEKTOREKO ARLO ZIENTIFIKO-TEKNOLOGIKOAN ETA ENPRESA ARLOAN, IKERTZAILE ETA TEKNOLOGO GAZTEAK PRESTATZEKO LAGUNTZA ESKAERA 2011KO EKITALDIRAKO

1. Norberaren datuak:

Deiturak: .....

Izena: .....

NAN: ..... Sexua: .....

Helbidea: .....

Hiria: ..... Posta-kodea: .....

Lurralde Historikoa: .....

Telefonoa: ..... Helbide elektronikoa .....

2. Datu akademikoak:

Tituluak: .....

Titulua zein ikastetxetan lortu den: .....

Titulua lortu zen eguna: .....

3. Eskatu den beka-programa:

Interesdunek laguntza eskatu ahal izango dute edozein programatan, eta I. eranskinean programa bakoitzerako jasotako 3 gai aukeratu ahal izango dituzte. Gaien hautaketa diru-laguntzak esleitzerakoan jarraitutako lehentasun-ordenaren arabera egin beharko da.

Orden	Proiektuaren izenburua
1.	
2.	
3.	

4. Eskatzaile guztiek aurkeztu beharreko agiri orokorrak:

a) Ikasketen ziurtagiri osoa (jatorrizkoa edo fotokopia konpultsatua). Ziurtagiri horretan egiaztatu beharko dira eskatzailearen kalifikazio guztiak eta kalifikazio horiek lortu zituenekо datak.

b) Curriculuma, eskabide honekin batera doan eskemaren araberakoa, eta bertan aipatzen diren merezimenduak egiaztatzeko egiaztagiriak edo/eta ziurtagiriak. Agiri hauen guztien bina kopia aurkeztuko dira.

c) Nortasun Agiri Nazionalaren kopia.

d) Errolda-ziurtagiria, 185/2007 Dekretuko seigarren puntuko 1b) paragrafoa betetzen dela egiaztatzeko.

e) Laguntza proiektuaren aukeraketa justifikatzen duen memoria laburra (gehienez ere 5 orrialde), kasu bakoitzean gaiari buruzko ezagutza azalduz eta aukeratutako gairako profil akademiko eta profesional egokia duela erakusten duten merezimendu pertsonalak argudiatuz. Agiri hauen guztien bina kopia aurkeztuko dira.

f) «Hirugarrenen alta» inprimaki ofiziala, agindu honen III. eranskinean azaltzen den eredu ofizialarekin bat datorrena.

ESKATZEN DU Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 2010eko uztailaren 29ko Aginduaren bidez deitutako euskal nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako zientzia, teknologia eta enpresen inguruan ikertzaileak eta teknologoak trebatzeko beketako bat ematea.

ADIERAZTEN DU ez duela diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten dituzten zehapen administratiborik edo penalik jasota izan, ezta horretarako legezko inolako debekurik izan ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen seigarren azken xedapenean zehaztutakoarekin bat etorriz.

....., 2011ko .....ren. ..... a.

Sinadura.

Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bidez eskatzen zaizkizun datuak fitxategi automatizatu batean sartuko direla, tratatzeko. Nahi baduzu, datuak eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurka egiteko eskubideak erabil ditzakezu, legean ezartzen den bezala. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Zerbitzu Zuzendaritzari idazkia bidali beharko diozu, bera baita zure datuk tratatzeko arduraduna. Hauxe du helbidea: Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz

ADENDA II. ERANSKINA- DOKUMENTAZIOA

Curriculum Vitae egiteko eredu-proposamena.

1. Datu pertsonalak.

Izena: .....

Deiturak: .....

Jaioterria: .....

Eguna: .....

NAN: .....

Gizarte Segurantzako zk: .....

Posta-helbidea: .....

Telefonoa: .....

Sakelakoal: .....

Helbide elektronikoal: .....

Gidatzeko baimena: .....

2. Informazio-ekintzak eta lanbide-prestakuntzako ekintzak.

- Titulu akademikoak eta noiz lortu diren.

- Prestakuntza akademikoa.

- Prestakuntza edo/eta egonaldiak atzerriko prestakuntza-zentrotan.

- Hizkuntzak.

- Prestakuntza osagarria.

3. Esperientzia.

- Praktikak unibertsitatean edo Teknologia Euskal Sareko teknologia-zentroetan.

- Praktikak nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza eta elikadura arloko enpresetan.

- Lan-esperientzia.

4. Biltzarretan parte hartzea eta argitarapenak.

5. Beste datu interesgarri batzuk.

6. Aurkeztutako merezimenduen ziurtagirien serenad.

Aurkeztutako merezimenduen ziurtagirien zerrenda jarraian adierazitako ataletan sailkatuta.

- Espediente akademikoa.
- EBeko hizkuntzak.
- Euskara.
- Espezializazio-ikastaroak.
- Beste unibertsitate-titulu batzuk.
- Praktikak unibertsitatean edo Teknologia Euskal Sareko teknologia-zentroetan.
- Praktikak nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, arrantza eta elikadura arloko enpresetan.
- Zientzia argitalpenetan parte hartu eta/edo kongresuetara joan izana.
- Beste merezimendu batzuk.

DATUEN ALTA / DOAKION HIRUGARRENA
ALTA DE DATOS / TERCERO INTERESADO

A **HIRUGARRENAREN EZAGUPENERAKO DATUAK**
DATOS IDENTIFICATIVOS DEL TERCERO

(1)NAN / IFK
D.N.I. /
C.I.F.....

(2)Izena eta bi abizenak / Sozietatearen izena
Nombre y dos apellidos / Razón social.....
.....

Helbidea
Domicilio.....

Posta Kodea **Herria**
Código Postal ..... Población .....

Lurraldea **Herrialdea**
Provincia..... País .....

B **BANKUAREN DATUAK**
DATOS BANCARIOS

(1)Bankua | | | | |
Banco .....

(2)Agentzia | | | | |
Agencia .....

(3)KD | | **K/Korrontea** | | | | | | | | | |
D.C. C/Corriente

(4)Jabea
Titular.....

C **Bankuaren adostasuna**
Conforme banco

Sinadura eta zigilua
Sello y Firma

D **Hirugarrenaren adostasuna**
Conforme tercero

Sinadura eta zigilua
Sello y Firma

E **Sail edo Erakundearen onespena**
V°B° Dpto u Organismo

Baimendutako sinadura eta zigilua
Sello y firma autorizada

Data / Fecha ...../...../.....

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Ekonomia eta Ogasun Sailak jakinarazten dizu dokumentu honen bitartez jarri dituzun zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu baten sartuko ditugula, ondoren, erabili ahal izateko.
Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Ekonomia eta Ogasun Saileko Zerbitzu Zuzendaritza, Donostia kalea, 1 –01010 Vitoria-Gasteiz.

En cumplimiento de lo dispuesto de la Ley Orgánica 15/1999 de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Economía y Hacienda, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este documento, van a ser incorporados para su tramitación en un fichero automatizado.
Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, ante la Dirección de Servicios del Departamento de Economía y Hacienda, calle Donostia-San Sebastián, 1 –01010 Vitoria-Gasteiz.

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 89 95 – Fax 945 01 90 20

INPRIMAKIAK BETETZEKO JARRAIBIDEAK

A: Pertsona fisiko edo juridikoa identifikatzeko datuak, ondoren adierazten denaren arabera.

1. Pertsona fisikoak: nortasun agiri nazionalaren zenbakia, identifikazio fiskaleko zenbakia edo, atzerritarren kasuan, pasaporte zenbakia.
   Pertsona juridikoak: identifikazio fiskaleko kodea.
2. Pertsona fisikoak: izena eta bi abizen.
   Pertsona juridikoak: izena edo helbide soziala.

B: Banku-datuak.

1.- Bankuaren kode eta izena.
2.- Agentziaren kode eta izena.
3.- Titularrak bankuan duen kontuaren kontrol digitua eta zenbakia adieraziko da.
4.- Izena eta bi abizenak, pertsona fisikoen kasuan, eta izena edo helbide soziala, pertsona juridikoen kasuan.

C: Bankuaren sinadura eta zigilua, bankuaren datuak ziurtatzeko.

D: Doakion hirugarrenaren sinadura eta zigilua, agirian azaltzen diren datuak zuzenak direla ziurtatzeko.

E: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak betetzeko.

DOKUMENTAZIO EUSKARRIA

Nortasun agiri nazionalaren, edo atzerritarren kasuan pasaportearen, edo identifikazio fiskaleko txartelaren fotokopia erantsiko da.

INSTRUCCIONES DE CUMPLIMENTACION

A: Datos identificativos de la persona física o jurídica según se indican a continuación.

1. Personas físicas: número de documento nacional de identidad, número de identificación fiscal o número de pasaporte si se trata de extranjeros.
   Personas jurídicas: código de identificación fiscal.
2. Personas físicas: nombre y dos apellidos.
   Personas jurídicas: nombre o razón social.

B: Datos bancarios.

1.- Código y denominación de la entidad bancaria.
2.- Código y denominación de la agencia.
3.- Dígito de control de la cuenta y el número de cuenta del titular en la entidad bancaria.
4.- Nombre y dos apellidos en el caso de personas físicas y nombre o razón social en el caso de personas jurídicas.

C: Firma y sello de la entidad bancaria certificando los datos bancarios.

D: Firma y sello del tercero interesado, certificando la corrección de los datos que figuran en el documento.

E: A rellenar por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

DOCUMENTACIÓN SOPORTE

Se adjuntara fotocopia del documento nacional de identidad, pasaporte en el caso de extranjeros, o tarjeta de identificación fiscal.

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 89 95 – Fax 945 01 90 20